

BIZKAIKO LANKIDETZAKO IV. PLAN ZUZENTZAILEA

2022-2030

Proiektuak barematzeko irizpideak

2022ko otsaila



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	1
-------------------------	----------

II. KAPITULUA. GARAPENERAKO LANKIDETZA

1. taldea. Proiektuaren kalitate teknikoa	2
1.1. azpitaldea. Diagnostikoa	2
1.2. azpitaldea. Koherentzia	3
1.3. azpitaldea. Baliabideak	3
1.4. azpitaldea. Jarraipena	4
1.5. azpitaldea. Jasangarritasuna	4
2. taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko lehen tasun araberako edukia	5
2.1 Azpitaldea. Lehen tasun geografikoa.....	5
2.2 Azpitaldea. Proiektuaren eredua	5
3. taldea. 2022-2030 IV. Gida Planean jasotako zeharkakoak	5
2.1. azpitaldea. Eskubideen ikuspegia.	5
2.2. azpitaldea. Genero-berdintasuna eta sexu-aniztasuna	6
2.3. azpitaldea. Ikuspegi ekologikoa	6
4. taldea. Eragile parte-hartzaileak	7
4.1. azpitaldea. Eragile eskatzailea	7
4.2. azpitaldea. Tokiko eragilea	8

III. KAPITULUA. GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA ETA/EDO SENTSIBILIZAZIOA

.....	9
-------	----------

1. taldea. Proiektuaren kalitate teknikoa	9
1.1. azpitaldea. Diagnostikoa	9
1.2. azpitaldea. Koherentzia	9
1.3. azpitaldea. Baliabideak	10
1.4. azpitaldea. Jarraipena	10
1.5. azpitaldea. Sistematizazioa.....	10
2. taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko lehen tasun araberako edukia	11
2.1. azpitaldea. Tokiko ikuspegi globala.	11
2.2. azpitaldea. Proiektuaren eredua	11
3. taldea. 2022-2030 IV. Gida Planean jasotako zeharkakoak	12
3.1. azpitaldea. Eskubideen ikuspegia.	12
3.2. azpitaldea. Genero-berdintasuna eta sexu-aniztasuna	12
3.3. azpitaldea. Ikuspegi ekologikoa	12



4. taldea. Eragile eskatzailea	13
---	-----------

IV. A KAPITULUA. EKINTZA PUNTUALAK TXIROTUTAKO HERRIALDEETAN 15

1. taldea. Proiektuaren kalitate teknikoa	15
1.1. azpitaldea. Diagnostikoa	15
1.2. azpitaldea. Koherentzia	15
1.3. azpitaldea. Baliabideak	15
1.4. azpitaldea. Jasangarritasuna	15

2. taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko lehen tasunen araberako edukia	16
2.1 Azpitaldea. Lehen tasun geografikoa	16

3. taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko zeharkakoak	16
3.1 azpitaldea. Genero berdintasuna eta aniztasun sexuala	16
3.2 Azpitaldea. Ikuspegi ekologikoa	16

4. taldea. Eragile parte-hartzaileak	17
---	-----------

IV. B KAPITULUA. EKINTZA PUNTUALAK BIZKAIAN 18

1. taldea. Proiektuaren kalitate teknikoa	18
1.1. azpitaldea. Diagnostikoa	18
1.2. azpitaldea. Koherentzia	18
1.3. azpitaldea. Baliabideak	18
1.4. azpitaldea. Metodologia	19

2. taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko lehen tasunen araberako edukia	19
2.1 Azpitaldea. Lehen tasun geografikoa	19
2.2 azpitaldea. Tokiko ikuspegi globala.....	19

3. taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko zeharkakoak	20
3.1 azpitaldea. Genero berdintasuna eta aniztasun sexuala	20
3.2 Azpitaldea. Ikuspegi ekologikoa	20

4. taldea. Eragile eskatzailea.....	20
--	-----------

V. KAPITULUA. ANTOLAMENDUA GENERO-BERDINTASUNAREN ALDE ALDATZEA..... 21

DIAGNOSTIKO BAT EGITEA.....	21
------------------------------------	-----------

1. taldea. Planifikazio teknikoa	21
1.1. azpitaldea. Aztertu beharreko alderdien definizioa	21
1.2. azpitaldea. Antolamendu-alderdien eta jardueren arteko koherentzia	21
1.3. azpitaldea. Baliabideen eta jardueren arteko koherentzia	21
1.4. azpitaldea. Jardueren kronograma	21

2. taldea. Laguntza teknikorako prestakuntza	21
---	-----------



3. taldea. Laguntza teknikoan esperientzia 22

4. taldea. Partaidetza-metodologia 22

PLAN ESTRATEGIKO BAT EGITEA..... 23

1. taldea. Planifikazio teknikoa 23

1.1. azpitaldea. Ondorioen azalpena 23

1.2. azpitaldea. Jardueren eta ondorioen arteko koherentzia 23

1.3. azpitaldea. Baliabideen eta jardueren arteko koherentzia 23

1.4. azpitaldea. Jardueren kronograma 23

2. taldea. Laguntza teknikorako prestakuntza 23

3. taldea. Laguntza teknikoan esperientzia 23

4. taldea. Partaidetza-metodologia 24

VI. KAPITULUA. LARRIALDIETAKO LAGUNTZAK ETA EKINTZA HUMANITARIOA 25

1. taldea. Proiektuaren kalitate teknikoa 25

1.1. azpitaldea. Diagnostikoa 25

1.2. azpitaldea. Koherentzia 25

1.3. azpitaldea. Baliabideak 26

2. taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko zeharkakoak 26

2.1 Azpitaldea. Genero ikuspegia 26

2.2 Azpitaldea. Ikuspegi ekologikoa 26

3. taldea. Eragile parte-hartzaileak 27

3.1 Azpitaldea. Eragile eskatzailea 27

3.2 azpitaldea. Tokiko eragilea 27

VII. KAPITULUA. URTE ANITZEKO PROIEKTUAK 29

1. taldea. Proiektuaren kalitate teknikoa 29

1.1 azpitaldea. Diagnostikoa 29

1.2 azpitaldea. Koherentzia 30

1.3 azpitaldea. Baliabideak 30

1.4 azpitaldea. Jarraipena 31

1.5 azpitaldea. Jasangarritasuna 31

2. taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko lehentasunen araberako edukia 32

2.1 Azpitaldea. Lehentasun geografikoa 32

2.2 azpitaldea. Proiektuaren eredua 32

3. taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko zeharkakoak 32

3.1 azpitaldea. Eskubideen ikuspegia 32

3.2 azpitaldea. Genero berdintasuna eta aniztasun sexuala 33

3.3 azpitaldea. Ikuspegi ekologikoa 33



4. taldea. Eragile parte-hartzaileak	34
4.1 azpitaldea. Eragile eskatzailea	34
4.2 azpitaldea. Tokiko eragilea	34
5. taldea. Balio erantsia	35
5.1 azpitaldea. Aldi baterako balio erantsia	35
5.2 azpitaldea. Lankidetzaren eta EpTSren egituratzearen arteko balio erantsia	35



AURKEZPENA

Dokumentu honetan zehaztasun osoz azaltzen da zein irizpide erabiliko diren 2022ko deialdian eraldaketa sozialerako lankidetzaproiektuetan, sentsibilizazio-proiektuetan eta hezkuntzaproiektuetan baremoak ezartzeko, tokiko gizarte-erakundeetan antolamendua genero berdintasunaren mesedetan aldatzeko eta larrialdietako laguntzak eta ekintza humanitarioak gauzatzeko. Haren egiturak eta edukiak harreman estua du 2022-2030 Bizkaiko lankidetzarako IV. Gida Planarekin.

Plan horrek definitzen du aipatutako aldirako gure lankidetzapolitika. 6 helburu estrategiko daude eta helburu horietatik 27 esku-hartze lerro sortu dira 2022-2024 urteetarako. Gainera, lau gai hauek zeharkako moduan proposatzen dira: eskubideetan oinarritutako ikuspegia, ikuspegi feminista, ikuspegi ekologikoa eta gizarte eraldaketarako hezkuntza ikuspegia. Horiek guztiek osatzen dute bederatzi urterako plan estrategikoa.

Kontuan izanda gure lankidetzapolitika gauzatzeko eskuragarri dauden funts gehienak deialdien bidez gauzatzen direla, nahitaezkoa da Gida Planaren arkitektura itzultzea bi baldintza bete behar dituzten irizpide batzuetara: 1) modu fidelean islatzea lankidetzapolitikan zehaztutakoa eta 2) ahal bezain objektiboa izatea. Horrek, bere aldetik, ahalegin bikoitza eskatzen du. Batetik, irizpide guztiek zeharkako guztiak eta helburu guztiak barne hartu behar dituzte, eta, ondorioz, indarrean dagoen Gida Planeko proposamenek ez dute gelditu behar hartutako baremo sistematik kanpo. Bestetik, proposamen horietako bakoitza nahikoa xehetasunez interpretatu beharko da, hau da, bakoitzak erantzuten dion egoera zehatza planteatu beharko du.

Irizpideak 2022ko deialdiko dirulaguntzak arautzen dituen dekretuan II-VII kapitulueterako jasota dauden hurrenkera berean aurkeztu dira. Dekretu horretan irizpideak aurkezten dira kapitulu guztietan formatu komun bat emanez. "Taldeen" banatuta daude, eta horietako bakoitzak ordinal batzuk ditu. Ordinal horien barnean, parentesi artean, adierazpen labur batez aipatzen dira ordinalak barne hartzen dituen irizpideak. Dokumentu honetan eskema berari jarraitzen zaio, "talde" izena mantendu da eta aipatutako ordinal bakoitzari "azpitalde" izena jarri zaio. Azpitalde bakoitzaren ondoren azaldu dugu dagokion irizpidea, haren azpimarratutako izenaren ondoren, zenbakitze korrelatibo bati jarraikiz.

Gure ustez, barematzeko irizpide hauek argitaratzea ez da soilik gardentasun-ekintza bat, komunikazio-ariketa bat ere bada, gehienbat gure deialdietan parte hartuko duten eragileentzako. Bertan azaltzen da zeintzuk diren gure lankidetzapolitikari hobekien egokitzen zaizkien proiektuen ezaugarriak.



II. KAPITULUA GARAPENERAKO LANKIDETZA

1. TALDEA. PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKOA. GEHIENEZ 25 PUNTU.

1.1. azpitaldea. Diagnostikoa. GEHIENEZ 11 PUNTU.

1.1. Aurrekariak. Gehienez 6 puntu.

3 puntuak jasotzeko lau baldintza bete behar dira, hauei dagozkienak: a) identifikazioa eta planifikazioa; b) formulazioa, c) gauzatzea; eta d) ebaluazioa edo sistematizazioa.

a) Identifikazioari eta planifikazioari dagokionez.

Kasu honetan, aldi berean, baldintza bi bete behar dira, metodologiari eta aniztasunari dagozkienak.

- Proiektua identifikatzeko eta planifikatzeko erabilitako **metodologia** parte-hartzailea izatea.

- Kontuan hartuko da **biztanleria subjektuaren aniztasuna**. **Biztanleria subjektua** da zuzenean proiektuan parte hartuko duten pertsonen osatutako taldea. Biztanleria horren **aniztasuna** da biztanleria subjektua azpitaldeetan banatzea ahalbidetzen duen ezaugarri-multzoa. Ezaugarri agerikoena da sexu-banaketa, baina, horrez gain, badaude aztertze beste zenbait kategoria posible, hala nola sexu-aniztasuna, erlijioa, pertsona lekualdatuek bertakoekin alderatuta duten egoera, adina, etnia, familiako errenta eta abar. Ez dago txantiloirik aniztasuna aztertze gidoi komun gisa erabiltzeko, GGKEak testuinguruaren arabera emango du aniztasunari lotutako alderdi garrantzitsuenen inguruko informazioa. Kontuan hartuta irizpide hau proiektuaren aurrekariari dagokiela, puntuak lortzeko, plangintza-, prestatze- eta betearazte-/ebaluzio-prozesuan aniztasun sozialaren ordezkari izatea egokia egoteko aurreikusitako neurrien berri eman beharko da.

b) Formulazioari dagokionez.

Gainera, proiektua modu parte-hartzailean **formulatu** beharko da. Hori horrela izateko, proiektua behin betiko idatzi aurretik gauzatuko den prozesu bat aurreikusi beharko da. Hala, prozesu horretan, proiektuaren inprimakiaren zirriborroa edo zirriborroak biztanleria subjektuari edo hura ordezkatzeko duenari aurkeztu beharko zaizkio, eta haiek horren inguruan eztabaidatu beharko dute.

c) Gauzatzeari buruz.

Gainera, proiektua modu parte-hartzailean **gauzatu** beharko da. Hori bete dela ulertuko da biztanleria subjektuaren jarrera ez denean pasiboa planifikatutako jardueretan. Horrenbestez, biztanleria subjektuak parte hartuko du proiektuaren nondik norakoan inguruan erabakiak hartuko diren aurreikusitako espazioetan.

d) Ebaluazioari edo sistematizazioari buruz.

Halaber, proiektua **ebalatu edo sistematizatu** beharko da, eta modu parte-hartzailean egin beharko da.

Adierazitako lau etapen artetik biztanleria subjektuak hirutan, bitan edo behin parte hartzea bakarrik aurreikusten baldin bada, **3 puntu** esleituko dira.



Gainerako kasuetan 0 puntu emango dira.

1.2. Testuingurua. 3 puntu.

Testuinguruari buruzko atalean inprimakia barematzeko, kontuan hartuko da biztanleria subjektuaren hurbileneko ingurunean dauden ezaugarri politiko, ekonomiko eta sozialei buruz aurkeztutako informazioa, bai eta barruko aniztasunaren ondoriozko komunitatearen barruko harremanei buruzkoa ere. 3 puntu.

1.3. Justifikazioa. 2 puntu.

Jorratu nahi den arazoa edo arazoak modu argi eta zehatzean azaltzen baldin badira eta biztanleriaren beharrizan eta interesetan oinarritutako harreman sendoa eratzen baldin bada. **2 puntu.**

1.2. azpitaldea. Koherentzia. Gehienez 3 puntu.

1.4. Helburuaren eta justifikazioaren arteko harremana. Puntu 1.

Proiektuaren **helburuak** eta justifikazioaren atalean deskribatutakoak lotura argia badute. **Puntu 1.**

1.5. Ekintzen azalpena. Gehienez 2 puntu.

Jarduerak nahikoa azalduta egon beharko dira. Jarduerak askotarikoak izan daitezkeenez, dokumentu honetan aurretik ematen ditugun azalpenetan ezinezkoa da horien azalpen-maila baloratzeko erabiliko diren aldagaiak zerrendatzea. Hala ere, adibide gisa aipatu daitezke prestakuntzaren inguruko jarduerak; horietan edukien azalpena baloratuko da. Beste adibide bat da eraikuntzari buruzko jarduerena, non titulartasunari, obra-memoriari eta planoei buruzko agiriak baloratuko diren. **2 puntu.**

Jardueraren bat nahikoa azalduta ez badago **puntu 1** esleituko da.

1.3. azpitaldea. Baliabideak. Gehienez 3 puntu.

1.6. Partidak banakatzea. Gehienez 2 puntu.

Aurrekontuko partida guztiak **banakatuta** badaude. Partidak banakatzea da lortu nahi den ondasun edo zerbitzu bakoitzaren unitate-kostua azaltzea. **2 puntu.**

Partidaren bat banakatuta ez baldin badago: **Puntu 1.**

1.7. Proformako fakturak. Puntu 1.

Honako hauek azaltzen dituzten fakturak eransten dira:

- Tokiko langileen eta/edo erbesteratutako langileen gastuetarako eskatutakoaren % 100.
- 2.500 euroko kostu unitariko ondasunen eta zerbitzuen % 100 (ekipamenduak, ibilgetua, kontratazioak ...).

Faktura horiek partidak jasotzen dituen taularekin behar bezala zenbakituta egon behar dira. **Puntu 1.**



1.4. azpitaldea. Jarraipena. Gehienez 4 puntu.

1.8. Adierazleak. Gehienez 4 puntu.

Helburuaren eta emaitzen lorpen-maila neurtzeko eta egiaztatzeko adierazleak jaso badira. **4 puntu.**

Emaitzaren batentzat edo zenbait emaitzentzat adierazleak jaso badira **2 puntu** esleituko dira.

1.5. azpitaldea. Jasangarritasuna. Gehienez 4 puntu.

1.9. Jasangarritasunerako bitartekoak. Puntu 1.

Proiektuaren ondorioz sortuko diren irabaziak, hala sozialak nola finantzarioak, mantentzeko beharrezko bitartekoei buruzko kalkulurik badago. **Puntu 1.**

Oro har, proiektuak hiru motatan bana ditzakegu, jasangarritasunari dagokionez:

- Garapen ekonomikoko proiektuak. Horietan beharrezkoa izango da abiarazi nahi den ekimenaren bideragarritasun finantzarioaren inguruko ikerketa oso bat aurkeztea.
- Garapen ekonomikoko proiektuak izan ez arren horiek mantentzeko sarreraren bat eskatzen dutenak. Adibidez, urez hornitzeko sistemak eraikitzea, eskola bat edo komunitate-zentro bat eraikitzea eta abar. Kasu horietan nahikoa izango da mantenu-kostuen eta horiei aurre egiteko sarreraren jatorriaren inguruko estimazio soil bat aurkeztea.
- Beste proiektu batzuk aplikatzen salbuetsiko dira, besteak beste erakundea indartzeari edo emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeari lotutakoak.

1.10. Abala. Puntu 1.

Tokiko erakunde publiko baten konpromisoa badago, emaitzak mantentzeko behar diren baliabideak emateko. Puntuatzeko, abala erantsi behar da. **Puntu 1.**

Salbuespenezko kasu batzuetan ezinezkoa izan daiteke abal hori lortzea, testuinguru instituzional zail baten aurrean gaudelako. Gatazka armatuetan jatorria izan dezaketen egoerak, hainbat instantzia inplikatzeko dituzten legez kanpoko negozioetan, agintari publikoen eta gizarte zibileko erakundeen arteko konfrontazio argi eta garbi batean... Kasu horietan, GKEak irizpide hori aurkeztutako proiektuaren baremazioan baztertzea egokia dela argudiatu ahal izango du. Bere argudioak aurkezteko gune egokia autobaremazio eranskina da.

1.11. Estrategia. 2 puntu.

Proiektua tokiko erakunde publiko baten edo bokazio publikoa duen erakunde baten garapena edo eraldaketa soziala lortzeko plan edo estrategia batekin lotuta badago. Diru-laguntzaren xede den proiektua estrategiarekin lotzen den puntuari erreferentzia berariaz egin beharko zaio, eta estrategia horren dokumentua erantsi beharko da. **2 puntu.**



2. TALDEA. 2022-2030EKO IV. PLAN ZUZENTZAILEKO IRIZPIDEEN ARABERAKO EDUKIA. GEHIENEZ 20 PUNTU.

2.1 Azpitaldea. Lehentasun geografikoa. Gehienez 7 puntu.

2.1 Afrikako kontinentea. 7 puntu.

Proiektua Afrikako herrialderen batean egiten bada. **7 puntu.**

2.2 Azpitaldea. Proiektuaren eredia. Gehienez 13 puntu.

2.2 Eragile ez-tradizionalen parte-hartzea. 7 puntu.

Ea proiektua garatzeko beharrezkoa den Bizkaiko eragile ez-tradizional batek parte-hartze aktiboa izatea. Parte-hartze hori jardueren esparruan nabarmendu behar da eta eragile ez-tradizional espezializatuaren esperientzian edo ezagutzan oinarrituta egon behar da. **7 puntu.**

2.3 Beste proiektu batzuekin koordinatzea. 3 puntu

Ea proiektuak bere esku-hartze eremuan ekintzetakoren bat koordinatzen edo osatzen duen Bizkaiko lankidetzak finantzatutako beste proiektu aktibo batekin, modu horretan, inpaktua handitzeko. Proiektuaren, erakunde betearazlearen eta finantzaketa iturriaren izena adierazi behar dira. Horrez gain, egituraketa eta azken horren balio erantsia zein izango den zehaztu beharko da. **3 puntu.**

2.4 Bizkaiko lankidetzak jarraitzea. 3 puntu.

Proiektua biztanleria subjektu berak edo inguru hurbileneko biztanleriak parte hartu zuen beste proiektu baten segidakoa baldin bada, eta Bizkaiko Foru Aldundiak aurreko 3 urteetako deialdietan finantzatu baldin bazuen. **3 puntu.**

3. TALDEA. 2022-2030 IV. GIDA PLANEAN JASOTAKO ZEHARKAKOAK. GEHIENEZ 32 PUNTU.

3.1. azpitaldea. Eskubideen ikuspegia. Gehienez 9 puntu.

3.1 Eskubideetan oinarritutako ikuspegia. 9 puntu.

- a) Proiektuaren testuinguruan urratzen diren eskubideei, eskubide horien titularrei, betebeharren titularrei eta giza eskubideen defentsarako tokiko erakundeei buruzko azterketa baldin badago. **3 puntu.**
- b) Ea proiektuak betebeharren eta eskubideen titularrak identifikatzen dituen eta betebeharren eta eskubideen titularrekin jarduerak planifikatzen dituen biztanleria subjektua babesten duten eskubideak betetzeko. Betebeharren titularren jardueretako parte-hartzea aktiboa izan behar da, ez pasiboa, eta proposamen orokorrean leku garrantzitsua izan behar du, hau da, ez da hutsala izan behar. **6 puntu.**



Salbuespenezko kasu batzuetan, betebeharren titularrekin lan egitea materialki ezinezkoa izan daiteke, testuinguru instituzional zail baten aurrean gaudelako. Gatazka armatuetan jatorria izan dezaketen egoerak, hainbat instantzia inplikatzan dituzten legez kanpoko negozioetan, agintari publikoen eta gizarte zibileko erakundeen arteko konfrontazio argi eta garbi batean... Kasu horietan, GKEak irizpide hori aurkeztutako proiektuaren baremazioan baztertzea egokia dela argudiatu ahal izango du. Bere argudioak aurkezteko gune egokia autobaremazio eranskina da.

3.2. azpitaldea. Genero-berdintasuna eta aniztasun sexuala. Gehienez 14 puntu.

3.2. Harreman bidezkoen sustapena. Gehienez 9 puntu.

Ea emakumeen eta gizonen arteko botere harremanen analisirik egiten den eta ikuspegi interseksionala sartzen den, ikusirik bestelako inguruabarrak daudela, hala-nola etnia, sexu orientazioa, gizarte klaseak, adina, desgaitasuna, eta abar. Eta analisi honekiko modu koherentean, harreman ekitatiboan sustapen hori proiektuan aurreikusitako emaitzaren batean, jardueraren batean edo adierazleren batean islatzen baldin bada. **9 puntu.**

Analisiak aipatutakoari erantzuten ez badio ero irizpidea bakarrik emaitza, jarduera edo adierazleren batean islatzen bada, **2 puntu** esleituko dira.

3.3 Erakunde feministak. 2 puntu.

Emakumeen eskubideen alde borrokatzen duten tokiko erakundeekin lankidetzan aritzea jasota baldin badago. **2 puntu.**

3.4 Aniztasun sexuala. 3 puntu.

Ea proiektuak emaitzaren, jardueraren eta adierazleren batean islatzen duen sexu identitateen/orientazioen eta genero ez normatiboan balorazio positiboa sustatzea. **3 puntu.**

Sexu identitateen eta genero ez normatiboan balorazio positiboa emaitzaren batean, jardueraren batean edo adierazleren batean islatzen baldin bada **1 puntu** esleituko da.

3.3. azpitaldea. Ikuspegi ekologikoa. Gehienez 9 puntu.

3.5 Ikuspegi ekologikoa. 9 puntu.

- a) Proiektua gauzatuko den testuinguruaren ingurumen egoerari buruzko azterketa jasotzen bada, egungo ekoizpen eta kontsumo ereduak herrialde txiroetan sortzen dituzten inpaktuen analisia eta ingurumen iraunkortasunari eragiten dioten mehatxu nagusiak, eta klima-aldaketak lurraldeari nola eragiten dion barne. **3 puntu.**
- b) Ea ekintzaren batik dagoen ingurumen jasangarritasuneko mehatxuei aurre egiteko, klima aldaketa neurtzeko edo horri aurre egiteko neurririk dagoen eta/edo bizitzaren jasangarritasuna ezartzen duen neurririk, hau da, naturaren, etxeko espazioaren eta merkatuaren arteko harreman orekatuagoak sustatzen dituztenak. Hori guztia proiektuan aurreikusitako emaitzaren batean, jardueraren batean edo adierazleren batean islatu behar da. **6 puntu.**

Baldintza hori bakarrik emaitzaren batean, jardueraren batean edo adierazleren batean islatzen baldin bada **2 puntu** esleituko dira.



4. TALDEA. ERAGILE PARTE-HARTZAILEAK. GEHIENEZ 23 PUNTU.

4.1. azpitaldea. Eragile eskatzailea. Gehienez 12 puntu.

4.1. Oinarri soziala. Puntu 1.

Erakunde eskatzaileak gutxienez kidetutako 50 pertsona baldin baditu, Bizkaian. **Puntu 1.**

4.2. Boluntarioak. 2 puntu.

Erakunde eskatzaileak gutxienez 10 boluntario baditu harekin lanean Bizkaian. Puntuak lortzeko, gutxienez 10 pertsonak GGKEari atxikitako boluntario gisa nahitaezko aseguru dutela ziurtatzen duen agiria erantsi behar da. Agiri horrekin batera, aseguruan pertsonaren izan-abizenak eta helbidea agertzen ez badira (kasu horretan, baino ez), GGKE eskatzaileak emandako beste bat erantsi behar da, non zehaztuko den aseguraturako zein pertsonak duten egoitza iraunkorra Bizkaian eta jasoko diren pertsona horien sinadurak. **2 puntu.**

4.3. Gaitasuna eta kaudimena. Puntu 1 gehienez.

Erakunde eskatzaileak diru-laguntzaren xede den proiektuaren proiektuaren guztizko aurrekontuaren kopuru bera edo handiagoa duen proiekturen bat gauzatu baldin badu. **Puntu 1.**

4.4. Eragile eskatzailearen eta tokiko eragilaren arteko harremana. Gehienez 3 puntu.

Eragileak adierazten baldin badu tokiko erakundearekin batera gutxienez 3 proiektu edo ekintza gauzatu dituela. **3 puntu.**

Adierazten baldin bada aurretik gutxienez 2 proiektu elkarrekin gauzatu dituztela. **Puntu 1.**

4.5. Sareetan parte hartzea. Gehienez 2 puntu.

Eragileak bi sareetan parte hartzen duela jakinarazten badu. Sareztat jotzen dugu erakunde batzuen arteko akordio bat, zeinaren bidez lan-espazio egonkor bat ezartzen den helburu komuna lortzeko aurrerapausoak emateko. **2 puntu.**

Sare batean parte hartzen duela jakinarazten badu. **Puntu 1.**

Sare batean edo bitan parte hartzen delako informazioa balidatzeko, parte-hartze aktiboari buruzko abal bat erantsi behar da, sarea ordezkatzeko duen agintariren bat emana (ez GGKE eskatzaileak). Sarea ordezkatzeko duen agintaririk ez badago, sarean diharduten beste hiru erakunderen (GGKE eskatzailea kontuan hartu gabe) abalak erantsi behar dira.

4.6. Komunikazioa. 3 puntu.

Ea GGKEk gizarte eraldaketarako hezkuntza estrategiarik egiaztatzen duen eta horrekin koherentzian, ea proiektuak gizarteratze larriko ekintzarik proposatzen duen komunikabideren, gizarte erakunderen edo erakunde publikoren batekin aliantzan. Gizarteratze kritikotzat jotzen dira egungo eredu nagusiari buruzko hausnarketa kritikoak sortzen dituztenak. Egungo ereduaren oinarria munduko gizarte, ekonomia eta lurralde desberdintasunek osatzen dute. **3 puntu.**



Estrategia egiaztatutzat joko da agiriak atxikitzen badira.

4.2. azpitaldea. Tokiko eragilea. Gehienez 11 puntu.

4.7 Lurraldean finkatuta egotea. 5 puntu gehienez.

Erakundeak proiektua (zeinetarako diru-laguntza eskatzen den) egin nahi den udalerrian gutxienez 3 proiektuko esperientzia badu edo biztanleria berarekin lan egin badu gutxienez hiru proiektutan, eta horri buruzko informazioa ematen badu. **5 puntu.**

Erakundeak adierazten badu esperientzia duela, biztanleria subjektu berarekin bi proiektutan lan egin duelako. **2 puntu.**

4.8. Esperientzia. Gehienez 4 puntu.

Erakundeak adierazten badu esperientzia duela, diru-laguntza eskatzea eragin duen proiektuaren barruan dagoen sektore berean gutxienez 3 proiektu egin dituelako. **4 puntu.**

Erakundeak adierazten badu esperientzia duela, sektore bereko bi proiektutan lan egin duelako: **2 puntu.**

4.9 Sareak eta aliantzak. Gehienez 2 puntu.

Erakundeak, gutxienez, gizarte-erakundeen bi saretan parte hartzen badu. **2 puntu.**

Erakundeak, gutxienez, sare batean parte hartzen badu **puntu 1** esleituko zaio.

Sare batean edo bitan parte hartzen delako informazioa balidatzeko, parte-hartze aktiboari buruzko abal bat erantsi behar da, sarea ordezkatzeko duen agintariren bat emana (ez GGKE eskatzaileak). Sarea ordezkatzeko duen agintaririk ez badago, sarean diharduten beste hiru erakunderen (GGKE eskatzailea kontuan hartu gabe) abalak erantsi behar dira.



III. KAPITULUA GIZARTEA ERALDATZEKO HEZKUNTZA ETA/EDO SENTSIBILIZAZIOA

1. TALDEA. PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKOA GEHIENEZ 20 PUNTU.

1.1. azpitaldea. Diagnostikoa. Gehienez 5 puntu.

1.1. Jorratu nahi den gaiaren azterketa. 2 puntu.

Proiektua egingo den testuinguruan haren gaiak duen egoera argi eta zehatz aztertu bada, eta, horrez gain, azterketan kontuan izan bada proiektuaren xede den gaiaren dimentsio globala. **2 puntu.**

1.2. Biztanleria subjektuaren ezaugarriak. 2 puntu.

Biztanleria subjektuaren ezaugarriak adierazten badira, informazioa eskainiz haren barruko aniztasunaz, eta proiektuan jorratu nahi den gaiarekin duen harremanaz. **2 puntu.**

Biztanleria subjektua da zuzenean proiektuan parte hartuko duten pertsonen osatutako taldea. Biztanleria horren **aniztasuna** da biztanleria subjektua azpitaldeetan banatzea ahalbidetzen duen ezaugarri-multzoa. Ezaugarri agerikoena da sexu-banaketa, baina, horrez gain, badaude aztertzeko beste zenbait kategoria posible, hala nola sexu-aniztasuna, erlijioa, pertsona lekualdatuek edo migratu dutenek bertakoekin alderatuta duten egoera, adina, etnia, familiako errenta eta abar.

Proiektua biztanleriari orokorrean zuzentzen bazaio, hau da, ez badago aurretiaz identifikatutako talderik, GGKEak inprimakian azpimarratu beharko du, irizpide hori proiektua barematzean kontuan ez izateko.

1.3. Biztanleriaren parte-hartzea. Puntu 1.

Mekanismoak ezarri badira biztanleria subjektuak aktiboki parte har dezan proiektuaren fase batzuetan edo guztietan. **Puntu 1.**

Irizpide hori aplikatuko da biztanleria subjektua aurretiaz identifikatu bada. Parte-hartzea honako hauetan hartuko da kontuan: 1) proiektuaren planifikazioan; 2) proiektua formulatzean, biztanleria horri zirriborroak azalduz; 3) proiektua gauzatzean biztanleria subjektuaren parte-hartze aktiboa aurreikusiz, eta ez informazio-hartzaile soiltzat jota; eta 4) proiektua ebaluatzean eta sistematizatzean, aurreikusitako lan-metodologia azalduz.

1.2. azpitaldea. Koherentzia. Gehienez 5 puntu.

1.4 Koherentzia. 3 puntu.

Harreman garbia badago inprimakiaren azalpen-atalean aurkeztutako egoeraren azterketaren eta helburuen, emaitzen eta planifikatutako jardueren artean. **3 puntu.**

1.5. Ekintzen azalpena. 2 puntu.

Planifikatutako ekintzak nahikoa zehaztasunez azalduta badaude. **2 puntu.**

Jarduerak askotarikoak izan daitezkeenez, dokumentu honetan aurretik ematen ditugun azalpenetan ezinezkoa da horien azalpen-maila baloratzeko erabiliko diren aldagaiak



zerrendatzea. Hala ere, adibide gisa aipatu daitezke prestakuntzaren inguruko jarduerak; horietan edukien azalpena baloratuko da. Beste adibide bat ikerkuntza lanarena da, non azaldu behar den erabilitako lan-metodologia.

1.3. azpitaldea. Baliabideak. Gehienez 3 puntu.

1.6. Aurrekontua banakatuta. Puntu 1.

Aurrekontuko partida guztiak **banakatuta** daude. Partidak banakatzea da lortu nahi den ondasun edo zerbitzu bakoitzaren unitate-kostua azaltzea. **Puntu 1.**

1.7. Aurrekontuko baliabideak. Puntu 1.

Aurrekontuan jasotako **baliabideak**, bai giza baliabideak baita baliabide materialak ere, beharrezkoak eta nahikoak badira jarduerak gauzatzeko. Nahikotasuna baloratzeko, kontuan izango da sinesgarria izatea aurrekontuko baliabideek harreman orekatua izatea ekintzekin. Beharra baloratzeko kontuan izango da aurrekontuko baliabideen garrantzia, edo, bestela, osagarriak diren edo ezinbestekoak ez diren. **Puntu 1.**

1.8. Proformako fakturak. Puntu 1.

Honako hauek azaltzen dituzten fakturak eransten dira:

- Langileen gastuetarako eskatutakoaren % 100.
- 2.500 euroko kostu unitariko ondasunen eta zerbitzuen % 100 (ekipamenduak, ibilgetua, kontratazioak ...).

Faktura horiek partidak jasotzen dituen taularekin behar bezala zenbakituta egon behar dira. **Puntu 1.**

1.4. azpitaldea. Jarraipena. Gehienez 3 puntu.

1.9. Adierazleak. Gehienez 3 puntu.

Helburuaren eta emaitzen lorpen-maila neurtzeko eta egiaztatzeko adierazleak jaso badira. **3 puntu.**

Emaitzaren batentzat edo zenbait emaitzentzat adierazleak jaso direnean **puntu 1** esleituko da.

1.5. azpitaldea. Sistematizazioa. Gehienez 4 puntu.

1.10. Sistematizazioa. 4 puntu.

Hausnarketa prozesu bat planifikatu bada proiektuan gertatutakoari buruz, eta aurreikusi bada hausnarketa hori jasoko duen dokumentu bat sortzea. **4 puntu.**



2. TALDEA. 2022-2030EKO IV. PLAN ZUZENTZAILEKO LEHENTASUNEN ARABERAKO EDUKIA. GEHIENEZ 29 PUNTU.

2.1 azpitaldea. Tokiko ikuspegi globala. Gehienez 12 puntu.

2.1. Beste herrialde batzuek parte-hartzea. Gehienez 8 puntu.

Proiektuak sustatzen badu beste herrialde batzuetako erakundeek, kolektiboek eta pertsonak parte hartzea. Parte hartzea aktiboa izan behar da, eta proiektua planifikatzen edo ezagutza eraikitzen hartu behar dute parte. **8 puntu.**

Proiektuak islatzen badu beste herrialde batzuetako errealitatea. **2 puntu.**

Proiektuak beste herrialde batzuetako errealitatea islatzen badu, horien esperientziak eta horiengandik ikasitakoak azalduz. Beste herrialde batzuetako esperientziak martxan jarri dituzten eta/edo beraien esperientziari buruzko ikaskuntzak hedatzen dituzten erakundeekin gutxienezko komunikazioa egon behar da, garapenerako irtenbideak eraikitzeko gizakien eta jasangarritasunaren ikuspegitik. Ondorioz, bakarrik erakusketa bat instalatzeak ez luke punturik emango. **2 puntu.**

2.2 Lankidetzak ekintzekin lotuta egotea. 4 puntu.

Ea proiektua garapenerako lankidetzari eta/edo ekintza humanitarioei lotuta dagoen. Lotura hori proiektuaren jardueraren batekiko ezarri behar da eta zertan datzan azaldu behar da. **4 puntu.**

2.2 azpitaldea. Proiektuaren eredia. Gehienez 17 puntu.

2.3. Lurralde ikuspegia. 2 puntu.

Proiektuak barne hartzen baditu Bilbo ez den Bizkaiko beste herriren batean egiteko jarduerak. **2 puntu.**

2.4. Afrikan oinarritutako gaiak. 5 puntu.

Proiektuak barne hartzen baditu Afrikari buruzko errealitatearen inguruko sentsibilizazio ekintzak. **5 puntu.**

2.5 Foru lankidetzak jarraitzea. 3 puntu.

Ea proiektua azken 3 urteetan BFAk finantzaturako deialdietako proiekturen baten jarraipena den. **3 puntu.**

2.6 Eragile ez-tradizionalen parte-hartzea. 7 puntu

Ea proiektua garatzeko beharrezkoa den Bizkaiko eragile ez-tradizional batek parte-hartze aktiboa izatea. Parte-hartze hori jardueren esparruan nabarmendu behar da eta eragile ez-tradizional espezializatuaren esperientzian edo ezagutzan oinarrituta egon behar da. **7 puntu.**



3. TALDEA. 2022-2030EKO IV. PLAN ZUZENTZAILEKO ZEHARKAKOAK. GEHIENEZ 32 PUNTU.

3.1 azpitaldea. Eskubideen ikuspegia. Gehienez 9 puntu.

- a) Proiektuaren testuinguruan urratzen diren eskubideei, eskubide horien titularrei, betebeharren titularrei eta giza eskubideen defentsarako tokiko erakundeei buruzko azterketa baldin badago. **3 puntu.**
- b) Ea proiektuak betebeharren eta eskubideen titularrak identifikatzen dituen eta betebeharren eta eskubideen titularrekin jarduerak planifikatzen dituen biztanleria subjektua babesten duten eskubideak betetzeko. Betebeharren titularren jardueretako parte-hartzea aktiboa izan behar da, ez pasiboa, eta proposamen orokorrean leku garrantzitsua izan behar du, hau da, ez da hutsala izan behar. **6 puntu.**

3.2 azpitaldea. Genero berdintasuna eta aniztasun sexuala. Gehienez 14 puntu.

3.2 Harreman ekitatiboak sustatzea. Gehienez 9 puntu.

Ea emakumeen eta gizonen arteko botere harremanen analisirik egiten den eta ikuspegi interseksionala sartzen den, ikusirik bestelako inguruabarrak daudela, hala-nola etnia, sexu orientazioa, gizarte klaseak, adina, desgaitasuna, eta abar. Eta analisi honekiko modu koherentean, harreman ekitatiboen sustapen hori proiektuan aurreikusitako emaitzaren batean, jardueraren batean edo adierazleren batean islatzen baldin bada. **9 puntu.**

Analisiak aipatutakoari erantzuten ez badio ero irizpidea bakarrik emaitza, jarduera edo adierazleren batean islatzen bada, **2 puntu** esleituko dira.

3.3 Erakunde feministak: 2 puntu.

Emakumeen eskubideen alde borrokatzen diren tokiko erakundeekin lankidetzan aritzea jasota baldin badago: **2 puntu.**

3.4 Aniztasun sexuala. 3 puntu.

Ea proiektuak emaitzaren, jardueraren eta adierazleren batean islatzen duen sexu identitateen/orientazioen eta genero ez normatiboen balorazio positiboa sustatzea. **3 puntu.**

Sexu identitateen eta genero ez normatiboen balorazio positiboa emaitzaren, jardueraren edo adierazleren batean islatzen baldin bada **1 puntu** esleituko da.

3.3 azpitaldea. Ikuspegi ekologikoa. Gehienez 9 puntu.

3.5 Ikuspegi ekologikoa. 9 puntu.

- a) Proiektua gauzatuko den testuinguruaren ingurumen egoerari buruzko azterketa jasotzen bada, egungo ekoizpen eta kontsumo erduek bizitzaren jasangarritasunean sortzen dituzten inpaktuen analisia eta ingurumen iraunkortasunari eragiten dioten mehatxu nagusiak eta klima-aldaketak lurraldeari nola eragiten dion barne. **3 puntu.**
- b) Ea ekintzaren batik dagoen ingurumen jasangarritasuneko mehatxuei aurre egiteko, klima aldaketa neurtzeko edo horri aurre egiteko neurririk dagoen eta/edo bizitzaren jasangarritasuna ezartzen duen neurririk, hau da, naturaren, etxeko espazioaren eta



merkatuaren arteko harreman orekatuagoak sustatzen dituztenak. Hori guztia proiektuan aurreikusitako emaitzaren, jardueraren edo adierazleren batean islatu behar da. **6 puntu.**

Baldintza hori bakarrik emaitzaren, jardueraren edo adierazleren batean islatzen baldin bada **2 puntu** esleituko dira.

4. TALDEA. ERAGILE ESKATZAILEA. GEHIENEZ 19 PUNTU.

4.1 azpitaldea. Eragile eskatzailea. Gehienez 19 puntu.

4.1. Oinarri soziala. 4 puntu.

Erakunde eskatzaileak gutxienez kidetutako 50 pertsona baldin baditu Bizkaian. **4 puntu.**

4.2. Boluntarioak. 4 puntu.

Erakunde eskatzaileak gutxienez 10 boluntario baditu harekin lanean Bizkaian. Puntuak lortzeko, gutxienez 10 pertsonak GGKEari atxikitako boluntario gisa nahitaezko aseguruia dutela ziurtatzen duen agiria erantsi behar da. Agiri horrekin batera, aseguruian pertsonaren izan-abizenak eta helbidea agertzen ez badira (kasu horretan, baina ez), GGKE eskatzaileak emandako beste bat erantsi behar da, non zehaztuko den aseguraturutako zein pertsonak duten egoitza iraunkorra Bizkaian eta jasoko diren pertsona horien sinadurak. **4 puntu.**

4.3. Kaudimena. 3 puntu gehienez.

Erakundeak diru-laguntzaren xede den proiektuaren aurrekontuaren kopuru bera edo handiagoa duen proiekturen bat gauzatu baldin badu. **3 puntu.**

Aurretik gauzaturutako proiektuaren zenbateko osoa diru-laguntzaren xede den proiektuaren aurrekontuaren % 75 den kasuetan. **2 puntu.**

4.4. Sareetako parte-hartzea. 4 puntu gehienez.

Erakundeak bi saretan parte hartzen duela jakinarazten badu. Sareztat jotzen dugu erakunde batzuen arteko akordio bat, zeinaren bidez lan-espazio egonkor bat ezartzen den helburu komuna lortzeko aurrerapausoak emateko. **4 puntu.**

Sare batean parte hartzen duela jakinarazten badu. **2 puntu.**

Sare batean edo bitan parte hartzen delako informazioa balidatzeko, parte-hartze aktiboari buruzko abal bat erantsi behar da, sarea ordezkatzeko duen agintariren bat emana (ez GGKE eskatzaileak). Sarea ordezkatzeko duen agintaririk ez badago, sarean diharduten beste hiru erakunderen (GGKE eskatzailea kontuan hartu gabe) abalak erantsi behar dira.

4.5. Komunikazioa. 4 puntu

Ea GGKEk gizarte eraldaketarako hezkuntza estrategiarik egiaztatzen duen eta horrekin koherentzian, ea proiektuak gizarteratze larriko ekintzarik proposatzen duen komunikabideren, gizarte erakunderen edo erakunde publikoren batekin aliantzan. Gizarteratze kritikotzat jotzen dira egungo eredu nagusiari buruzko hausnarketa kritikoak



sortzen dituztenak. Egungo ereduaren oinarria munduko gizarte, ekonomia eta lurralde desberdintasunek osatzen dute. **4 puntu.**

Estrategia egiaztatutzat joko da agiriak atxikitzen badira.



IV-A KAPITULUA
TXIROTUTAKO HERRIALDEETAN EGITEKO EKINTZA PUNTUALAK

1. TALDEA. PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKOA. GEHIENEZ 20 PUNTU.

1.1. azpitaldea. Diagnostikoa. Gehienez 6 puntu.

1.1. Aurrekariak. 2 puntu.

Azaltzen bada proiektua nola planifikatu zen, eta modu parte-hartzailean egin bazen. **2 puntu.**

1.2 Testuingurua. 2 puntu.

Biztanleriaren ezaugarriak adierazten badira eta informazioa ematen bada biztanleria horren bitoki den inguruaren harreman ekonomiko, politiko eta sozialen inguruko informazioa. **2 puntu.**

1.3. Justifikazioa. 2 puntu.

Jorratu nahi den arazoa edo arazoak argi eta zehatz azaltzen baldin badira eta biztanleriaren beharrezanetan eta interesetan oinarritutako harreman sendoa eratzten baldin bada. **2 puntu.**

1.2. azpitaldea. Koherentzia. Gehienez 6 puntu.

1.4. Helburuaren eta justifikazioaren arteko harremana. 6 puntu.

Sei puntuak lortzeko egiaztatu beharko da lotura koherente bat dagoela justifikazioa – helburua – ekintzak sekuentzian. **6 puntu.**

Sekuentzia horretan gabeziaren bat aurkitzen bada, **3 puntu** esleituko dira.

1.3. azpitaldea. Baliabideak. Gehienez 4 puntu.

1.5. Partidak banakatzea. 2 puntu.

Aurrekontuko partida guztiak banakatuta badaude. Partidak banakatzea da lortu nahi den ondasun edo zerbitzu bakoitzaren unitate-kostua azaltzea. **2 puntu.**

1.6. Proformako fakturak. 2 puntu.

Gastu zuzenearako eskatutako zenbatekoaren gutxienez % 70 azaltzen duten proformako fakturak atxiki badira. Faktura horiek aurrekontuaren partidak jasotzen dituen taularekin behar bezala zenbakituta egon behar dira. **2 puntu.**

1.4. azpitaldea. Jasangarritasuna. Gehienez 4 puntu.

1.7. Jasangarritasunerako bitartekoak. 2 puntu.

Lortutako helburua etorkizunean mantentzeko beharrezkoak diren baliabideak emateko erakunde baten konpromisoa baldin badago edo baliabide horiek lortzeko sistemaren bat aurreikusi bada. **2 puntu.**



1.8. Estrategia. 2 puntu.

Proiektua tokiko erakunde publiko baten edo bokazio publikoa duen erakunde baten garapena edo eraldaketa soziala lortzeko plan edo estrategia batekin lotuta badago. Dirulaguntzaren xede den proiektua estrategiarekin lotzen den puntuari erreferentzia berariaz egin beharko zaio, eta estrategia horren dokumentua erantsi beharko da. **2 puntu.**

2. TALDEA. 2022-2030EKO IV. PLAN ZUZENTZAILEKO LEHENTASUNEN ARABERAKO EDUKIA. GEHIENEZ 5 PUNTU.

2.1. azpitaldea. Lehenespen geografikoa. Gehienez 5 puntu.

2.1. Afrikako kontinentea. 5 puntu.

Proiektua Afrikako herrialderen batean egiten bada. **5 puntu.**

3. TALDEA. 2022-2030EKO IV. PLAN ZUZENTZAILEKO ZEHARKAKOAK. GEHIENEZ 17 PUNTU.

3.1 azpitaldea. Genero berdintasuna eta aniztasun sexuala. Gehienez 11 puntu.

3.1. Biztanleriaren ezaugarria. 4 puntu.

Biztanleriaren ezaugarriak ematean informazioa ezberdintzen bada sexuaren/generoaren arabera eta informazioa ematen bada emakumeen eta gizonen rola inguruan, atazen banaketaren inguruan, ondasun higiezinaren jabetzaren inguruan eta abar. **4 puntu.**

3.2. Emakumeen eskubideen defentsa. 4 puntu.

Proiektuaren helburu zentrala bada emakumeen eskubideak defendatzea. **4 puntu.**

3.3. Tokiko erakundeak. Puntu 1.

Aurreikusi bada emakumeen eskubideen alde borrokatzen duten tokiko erakundeekin lankidetzan aritzea. **Puntu 1.**

3.4 Aniztasun sexuala. 2 puntu.

Ea jarduerarik badagoen sexu identitate/orientazioen eta genero ez normatiboen balorazio positiboa sustatzeko. **2 puntu.**

3.2 azpitaldea. Ikuspegi ekologikoa. Gehienez 6 puntu.

3.5 Ikuspegi ekologikoa. 6 puntu.

Ea ingurumen egoeraren eta proiektuaren esku-hartzeko eremuan egoera horrek sortzen dituen mehatxu nagusien analisirik egiten den eta ea analisi horrekin lotutako jarduerarik edo adierazlerik proposatzen den. Hala bada, **6 puntu** esleituko dira.



Ingurumen egoeraren analisirik egiten ez bada edo aipatu ingurumen mehatxuekin lotutako jarduerarik/adierazlerik proposatzen ez bada, **2 puntu** esleituko dira.

4. TALDEA. ERAGILE PARTE-HARTZAILEAK. GEHIENEZ 8 PUNTU.

4.1 Lurraldean finkatuta egotea. 2 puntu.

Tokiko eragileak frogatzen badu gutxienez 2 urteko lan esperientzia duela biztanleria onuradunarekin edo egin nahi den udalerrian. **2 puntu.**

4.2. Esperientzia. Puntu 1.

Tokiko eragileak frogatzen badu gutxienez 2 proiektuko esperientzia duela proiektua kokatuta dagoen sektorean. **1 puntu.**

4.3 Sareak eta aliantzak. 2 puntu.

Tokiko eragileak, gutxienez, proiektua garatuko den lurraldeko gizarte erakundeen lan-talde edo sare batean parte hartzen badu.

Sarea edo lan-taldea da erakunde ezberdinek modu egonkorrean helburu komun bat lortzeko eratzen duten akordioa. **2 puntu.**

Sare batean parte hartzen delako informazioa balidatzeko, parte-hartze aktiboari buruzko abal bat erantsi behar da, sarea ordezkatzeko duen agintariren bat emana (ez GGKE eskatzaileak). Sarea ordezkatzeko duen agintaririk ez badago, sarean diharduten beste hiru erakunderen (GGKE eskatzailea kontuan hartu gabe) abalak erantsi behar dira.

4.4. Eragile parte-hartzaileen arteko lotura. 3 puntu.

Eragile parte-hartzaileek ekintza bateraturen bat egin badute aurretiaz edo erakunde eskatzaileak eta tokikoak sinatutako dokumentu bat aurkezten bada, lankidetzaren harremana jarraitzeko asmoa adierazten duena. **3 puntu.**



IV-B KAPITULUA EKINTZA PUNTUALAK BIZKAIAN

1. TALDEA. PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKOA. GEHIENEZ 20 PUNTU.

1.1. azpitaldea. Diagnostikoa. Gehienez 6 puntu.

1.1. Analisia. 2 puntu.

Proiektua egingo den testuinguruan haren gaiak duen egoera argi eta zehatz aztertu bada. Horrez gain, analisi horretan kontuan izan bada proiektuaren xede den gaiaren dimentsio globala. **2 puntu.**

1.2. Biztanleria subjektuaren ezaugarriak. 2 puntu.

Biztanleria subjektuaren nahikoa ezaugarri eman badira. Proiektua biztanleriari orokorrean zuzentzen bazaio, hau da, ez badago aurretiaz identifikatutako talderik, GKEak hori inprimakian azpimarratu beharko du, irizpide hori proiektua barematzean kontuan ez izateko. **2 puntu.**

1.3 Partaidetza. 2 puntu gehienez.

Mekanismoak ezarri badira biztanleria subjektuak parte har dezan proiektuaren fase batzuetan edo guztietan. **2 puntu.**

Irizpide hori aplikatuko da biztanleria subjektua aurretiaz identifikatu bada. Parte-hartzea honako hauetan hartuko da kontuan: 1) proiektuaren planifikazioan; 2) proiektua formulatzean, biztanleria horri zirriborroak azalduz; 3) proiektua gauzatzean, biztanleria subjektuaren parte-hartze aktiboa aurreikusiz, eta ez informazio-hartzaile soiltzat jota; eta 4) proiektua ebaluatzean eta sistematizatzean, aurreikusitako lan-metodologia azalduz.

Biztanleria subjektuak aipatutako faseren batean parte hartzen badu. **Puntu 1.**

Irizpide hori ez da aplikatuko biztanleria subjektua ez bada aurretiaz identifikatutako talde bat.

1.2. azpitaldea. Koherentzia. Gehienez 6 puntu.

1.4. Helburuaren eta justifikazioaren arteko harremana. 6 puntu.

Sei puntuak lortzeko egiaztatu beharko da lotura koherente bat dagoela justifikazioa – helburua – ekintzak sekuentzian. **6 puntu.**

Sekuentzia horretan gabeziaren bat aurkitzen bada, **3 puntu** esleituko dira.

1.3. azpitaldea. Baliabideak. Gehienez 6 puntu.

1.5. Partidak banakatzea. 2 puntu.

Aurrekontuko partida guztiak banakatuta badaude. Partidak banakatzea da lortu nahi den ondasun edo zerbitzu bakoitzaren unitate-kostua azaltzea. **2 puntu.**



1.6. Aurrekontuko baliabideak. 2 puntu.

Aurrekontuan jasotako baliabideak, bai giza baliabideak baita baliabide materialak ere, beharrezkoak eta nahikoak badira jarduerak gauzatzeko. Nahikotasuna baloratzeko kontuan izango da zein neurritan egokitzen zaien aurrekontuko baliabide multzoa planifikatutako ekintzei. Beharra baloratzeko kontuan izango da aurrekontuko baliabideen garrantzia, edo, bestela, osagarriak diren edo ezinbestekoak ez diren. **2 puntu.**

1.7. Proformako fakturak. 2 puntu.

Gastu zuzenetarako eskatutako zenbatekoaren gutxienez % 70 azaltzen duten proformako fakturak atxiki badira. Faktura horiek aurrekontuaren partidak jasotzen dituen taularekin behar bezala zenbakituta egon behar dira. **2 puntu.**

1.4. azpitaldea. Metodologia. Gehienez 2 puntu.

1.8 Metodologia. Gehienez 2 puntu.

- Proiektuaren inprimakian argudiatzen bada proposatutako lan-metodologia biztanleria subjektuaren ezaugarrietara egokitzen dela. **Puntu 1.**
- Koherentzia badago proposatutako lan-metodologiaren eta programatutako baliabideen artean. **Puntu 1.**

2. TALDEA. 2022-2030EKO IV. PLAN ZUZENTZAILEKO LEHENTASUNEN ARABERAKO EDUKIA. GEHIENEZ 8 PUNTU.

2.1 azpitaldea. Lehenespen geografikoa. Gehienez 4 puntu.

2.1 Afrikako kontinentea. Puntu 2.

Proiektua Afrikako herrialderen batean egiten bada. **Puntu 2.**

2.2. Lurralde ikuspegia. 2 puntu.

Proiektuak barne hartzen baditu Bilbo ez den Bizkaiko beste herriren batean egiteko jarduerak. **Puntu 2.**

2.2 azpitaldea. Tokiko ikuspegi globala. Gehienez 4 puntu.

2.3 Beste herrialde batzuek parte-hartzea. 4 puntu.

Proiektuak sustatzen badu beste herrialde batzuetako erakundeek, kolektiboek eta pertsonak parte hartzea. Parte hartzea aktiboa izan behar da, eta proiektua planifikatzen edo ezagutza eraikitzen hartu behar dute parte. **Puntu 4.**

Proiektuak beste herrialde batzuetako errealitatea islatzen badu, horien esperientziak eta horiengandik ikasitakoak azalduz. Beste herrialde batzuetako esperientziak martxan jarri dituzten eta/edo beraien esperientziari buruzko ikaskuntzak hedatzen dituzten erakundeekin gutxienezko komunikazioa egon behar da, garapenerako irtenbideak eraikitzekeo gizakien eta jasangarritasunaren ikuspegitik. Ondorioz, bakarrik erakusketa bat instalatzeak ez luke punturik emango. **2 puntu.**



3. TALDEA. 2022-2030EKO IV. PLAN ZUZENTZAILEKO ZEHARKAKOAK. GEHIENEZ 17 PUNTU.

3.1 azpitaldea. Genero berdintasuna eta aniztasun sexuala. Gehienez 11 puntu.

3.1. Biztanleriaren ezaugarriak. 4 puntu.

Proiektuak jorratutako gaiarekin zuzenean lotutako biztanleriaren ezaugarriak adierazten badira, sexuaren/generoaren arabera banatuta, eta emakumeen eta gizonen rolen inguruko informazioa ematen bada. **4 puntu.**

3.2. Emakumeen eskubideen defentsa. 4 puntu.

Proiektuaren helburu zentrala bada emakumeen eskubideak jorratzea. **4 puntu.**

3.3. Tokiko erakundeak. 1 puntu.

Emakumeen eskubideen alde borrokatzen diren tokiko erakundeekin lankidetzan aritzea jasota baldin badago. **1 puntu.**

3.4 Aniztasun sexuala. 2 puntu.

Ea jarduerarik badagoen sexu identitate/orientazioen eta genero ez normatiboen balorazio positiboa sustatzeko. **2 puntu.**

3.2 azpitaldea. Ikuspegi ekologikoa. Gehienez 6 puntu.

3.5 Ikuspegi ekologikoa. 6 puntu.

Ea ingurumen egoeraren eta proiektuaren esku-hartzeko eremuan egoera horrek sortzen dituen mehatxu nagusien analisirik egiten den eta ea analisi horrekin lotutako jarduerarik edo adierazlerik proposatzen den. Hala bada, **6 puntu** esleituko dira.

Ingurumen egoeraren analisirik egiten ez bada edo aipatu ingurumen mehatxuekin lotutako jarduerarik/adierazlerik proposatzen ez bada, **2 puntu** esleituko dira.

4. TALDEA. ERAGILE ESKATZAILEA GEHIENEZ 5 PUNTU.

4.1. Sareetan parte hartzea. Gehienez 5 puntu.

Erakundeak adierazten badu proiektuaren gaiaren inguruko sare batean edo lan-talde batean parte hartzen duela. Sarea edo lan-taldea da erakunde ezberdinek modu egonkorrean helburu komun bat lortzeko eratzten duten akordioa. 5 puntu.

Berriaz planteatzen bada proiektuaren gaiaren inguruko sare bat edo lan-talde bat sortzeko intentzioa, 2 puntu esleituko dira.

Sare batean parte hartzen delako informazioa balidatzeko, parte-hartze aktiboari buruzko abal bat erantsi behar da, sarea ordezkatzeko duen agintariren bat emana (ez GGKE eskatzaileak). Sarea ordezkatzeko duen agintaririk ez badago, sarean diharduten beste hiru erakunderen (GGKE eskatzailea kontuan hartu gabe) abalak erantsi behar dira.



V. KAPITULUA ANTOLAMENDUA GENERO-BERDINTASUNAREN ALDE ALDATZEA

DIAGNOSTIKO BAT EGITEA

1. TALDEA. PLANIFIKAZIO TEKNIKOA. GEHIENEZ 20 PUNTU.

1.1 azpitaldea. Aztertu beharreko alderdien definizioa. Gehienez 8 puntu.

Aztertu beharreko antolamendu-alderdien definizio argi eta zehatza ematen bada. **8 puntu.**

Antolamendu-alderdiak diagnostikoaren mende jarriko diren antolamenduaren eremuak edo elementuak izango lirateke, esate baterako, antolakuntza-kultura, erabakiak hartzea eta abar. Ez daude aldez aurretik definituak; erakunde eskatzaileak mugatu eta azaldu behar ditu.

Antolamendu-alderdien definizioan hutsuneren bat badago, **4 puntu** esleituko dira.

1.2 azpitaldea. Antolamendu-alderdien eta jardueren arteko koherentzia. Gehienez 5 puntu.

Aurreikusitako jardueren eta definituriko antolamendu-alderdien artean lotura bat badago. **5 puntu.**

Sekuentzia horretan gabeziaren bat aurkitzen bada, **2 puntu** esleituko dira.

1.3 azpitaldea. Baliabideen eta jardueren koherentzia. Gehienez 5 puntu.

Aurrekontuan sarturiko baliabideen eta aurreikusitako jardueren artean lotura argi bat badago. **5 puntu.**

Sekuentzia horretan gabeziaren bat aurkitzen bada, **2 puntu** esleituko dira.

1.4 azpitaldea. Jardueren kronograma. Gehienez 2 puntu.

Jardueren kronograma bat sartzen bada. **2 puntu.**

2. TALDEA. LAGUNTZA TEKNIKORAKO PRESTAKUNTZA. GEHIENEZ 10 PUNTU.

Ea laguntza teknika gidatzen duen pertsonak gutxienez 300 orduko genero prestakuntza espezifikorik duen. **10 puntu.**

Ea laguntza teknika gidatzen duen pertsonak gutxienez 100 orduko genero prestakuntza espezifikorik duen. **5 puntu.**



3. TALDEA. LAGUNTZA TEKNIKOAN ESPERIENTZIA. GEHIENEZ 10 PUNTU.

Laguntza teknikoaren buru den pertsonak berdintasunaren aldeko erakunde antolamendua aldatzeko planak egiteko 4 prozesutan (gutxienez) aurretiko esperientziarik duen. **10 puntu.**

Laguntza teknikoaren buru den pertsonak berdintasunaren aldeko erakunde antolamendua aldatzeko planak egiteko 2 prozesutan (gutxienez) aurretiko esperientziarik duen. **5 puntu.**

4. TALDEA. PARTAIDETZA-METODOLOGIA. GEHIENEZ 10 PUNTU.

Modu argi eta zehatzean erakundea osatzen duten pertsona guztien partaidetza bermatzen duen metodologia bat deskribatzen bada. **10 puntu.**

Azalpen argi eta zehatzik ez badago, baina partaidetza-jarduerak aurreikusten badira. **5 puntu.**



PLAN ESTRATEGIKO BAT EGITEA

1. TALDEA. PLANIFIKAZIO TEKNIKOA. GEHIENEZ 20 PUNTU.

1.1 azpitaldea. Ondorioen azalpena. Gehienez 8 puntu.

Plana egiteko oinarri gisa erabili daitekeen diagnostikoaren ondorio nagusien azalpen argi bat badago. **8 puntu.**

Ondorioen azalpenean hutsuneren bat antzematen bada **4 puntu** esleituko dira.

1.2 azpitaldea. Jardueren eta ondorioen koherentzia. Gehienez 5 puntu.

Aurreikusitako jardueren eta azalduko ondorioen artean lotura bat badago. **5 puntu.**

Sekuentzia horretan gabeziaren bat aurkitzen bada, **2 puntu** esleituko dira.

1.3 azpitaldea. Baliabideen eta jardueren koherentzia. Gehienez 5 puntu.

Aurrekontuan sarturiko baliabideen eta aurreikusitako jardueren artean lotura argi bat badago. **5 puntu.**

Sekuentzia horretan gabeziaren bat aurkitzen bada, **2 puntu** esleituko dira.

1.4 azpitaldea. Jardueren kronograma. Gehienez 2 puntu.

Jardueren kronograma bat sartzen bada. **2 puntu.**

2. TALDEA. LAGUNTZA TEKNIKORAKO PRESTAKUNTZA. GEHIENEZ 10 PUNTU.

Ea laguntza teknika gidatzen duen pertsonak gutxienez 300 orduko genero prestakuntza espezifikorik duen. **10 puntu.**

Ea laguntza teknika gidatzen duen pertsonak gutxienez 100 orduko genero prestakuntza espezifikorik duen. **5 puntu.**

3. TALDEA. LAGUNTZA TEKNIKOAREN ESPERIENTZIA. GEHIENEZ 10 PUNTU.

Laguntza teknikoaren buru den pertsonak genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako planak burutzeko 4 prozesutan (gutxienez) aurretiko esperientzia badu. **10 puntu.**

Laguntza teknikoaren buru den pertsonak planak burutzeko 2 prozesutan (gutxienez) aurretiko esperientzia badu. **5 puntu.**



4. TALDEA. PARTAIDETZA-METODOLOGIA. GEHIENEZ 10 PUNTU.

Modu argi eta zehatzean erakundea osatzen duten pertsona guztien partaidetza bermatzen duen metodologia bat deskribatzen bada. **10 puntu.**

Azalpen argi eta zehatzik ez badago, baina partaidetza-jarduerak aurreikusten badira. **5 puntu.**



VI. KAPITULUA. LARRIALDIETAKO LAGUNTZAK ETA EKINTZA HUMANITARIOAK

1. TALDEA. PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKOA. GEHIENEZ 23 PUNTU.

1.1. azpitaldea. Diagnostikoa. Gehienez 7 puntu.

1.1. Testuinguruaren analisisa. 2 puntu.

Testuingurua garbi eta zehatz aztertzen bada (egitura sozialak, berdintasun ezak, jarduera ekonomikoak, alderdi soziokulturalak eta abar), eta jasotzen badira desastrea edo krisia ekarri zuten zaugarritasun-faktoreak, edo, desastreetarako prestatzeko edo horiek saihesteko proiektuen kasuan, jasotzen badira desastrea ekar dezaketen faktoreak. **2 puntu.**

1.2. Biztanleriaren ezaugarriak. 2 puntu.

Desastreak ukitutako (edo desastreak uki dezakeen) biztanleriaren ezaugarriak adierazten badira. Ezaugarriak adieraztean informazioa eman beharko da biztanleriaren barne-aniztasunari buruz eta talde barneko botere-harremani buruz. **2 puntu.**

Biztanleria horren **aniztasuna** da biztanleria subjektua azpitaldeetan banatzea ahalbidetzen duen ezaugarri-multzoa. Ezaugarri agerikoena da sexu-banaketa, baina, horrez gain, badaude aztertzeko beste zenbait kategoria posible, hala nola sexu-aniztasuna, erlijioa, pertsona lekualdatuek bertakoekin alderatuta duten egoera, adina...

1.3. Parte hartzeko mekanismoak. 3 puntu.

Metodo parte-hartzaileak erabili badira proiektua identifikatzeko edo planifikatzeko, edo aurreikusi bada horrelakoak erabiltzea gauzatze-fasean edo ebaluazio-fasean. **3 puntu.**

1.2. azpitaldea. Koherentzia. Gehienez 13 puntu.

1.4. Helburuaren eta justifikazioaren arteko harremana. 2 puntu.

Proiektuaren helburuak eta testuinguruaren analisisan deskribatutakoak lotura argia badute. **2 puntu.**

1.5. Emaitzen eta helburuen lotura. 2 puntu.

Aurreikusitako emaitzak helburua lortzeko koherenteak eta osoak badira. **2 puntu.**

1.6. Ekintzen azalpena. 3 puntu.

Jarduerak nahiko azalduta daude. Jarduerak askotarikoak izan daitezkeenez, dokumentu honetan aurretik ematen ditugun azalpenetan ezinezkoa da horien azalpen-maila baloratzeko erabiliko diren aldagaiak zerrendatzea. Hala ere, adibide gisa aipatu daitezke laguntza banatzeko jarduerak. Beste adibide bat da birgaitze proiektuetarako azpiegiturak eraikitze jarduerena. **3 puntu.**

1.7. Adierazleak. 2 puntu.

Helburuak betetzeari eta emaitzak lortzeari buruzko adierazleak formulatu badira. **2 puntu.**



1.8. Lotura planekin edo estrategiekin. 4 puntu.

Proiektua tokiko erakunde publiko baten edo bokazio publikoa duen erakunde baten garapena edo eraldaketa soziala lortzeko plan edo estrategia batekin lotuta badago. Diru-laguntzaren xede den proiektua estrategiarekin lotzen den puntuari erreferentzia berariaz egin beharko zaio, eta estrategia horren dokumentua erantsi behar da. **4 puntu.**

1.3. azpitaldea. Baliabideak. Gehienez 3 puntu.

1.9. Partidak banakatzea. Gehienez 2 puntu.

Aurrekontuko partida guztiak **banakatuta** daude. Partidak banakatzea da lortu nahi den ondasun edo zerbitzu bakoitzaren unitate-kostua azaltzea. **2 puntu.**

Partidaren bat banakatuta ez baldin badago: **Puntu 1.**

1.10. Proformako fakturak. Puntu 1.

Gastu zuzenetarako eskatutako zenbatekoaren gutxienez % 50 azaltzen duten proformako fakturak atxiki behar dira. Faktura horiek partidak jasotzen dituen taularekin behar bezala zenbakituta egon behar dira. **Puntu 1.**

Irizpide hori ez zaie aplikatuko larrialdietako eta ekintza humanitarioetako esku-hartzeetan espezializatutako Nazio Batuen agentziaren batek babestutako erakundeek aurkeztutako larrialdietako proiektuei edo laguntza humanitarioko proiektuei.

2. TALDEA. 2022-2030EKO IV. PLAN ZUZENTZAILEKO ZEHARKAKOAK. GEHIENEZ 15 PUNTU.

2.1 Azpitaldea. Genero ikuspegia. Gehienez 9 puntu.

2.1 Genero ikuspegia. Gehienez 9 puntu.

- Emakumeen eta gizonen egoeraren eta mailaren azterketa eta beraien beharrian praktikoei eta interes estrategikoei buruzko azterketa egiten badu. **2 puntu.**
- Proiektu osoaren helburua bada emakumeen eta gizonen arteko harreman bidezkoak sustatzea. Hori proiektuan aurreikusitako emaitzaren batean, jardueraren batean edo adierazleren batean islatu behar da. **7 puntu.**

Harreman bidezkoen sustapena proiektuan aurreikusitako emaitzaren batean, jardueraren batean edo adierazleren batean islatzen bada. **2 puntu.**

2.2 Azpitaldea. Ikuspegi ekologikoa. Gehienez 6 puntu.

2.2 Ikuspegi ekologikoa: 6 puntu.

Ea proiektuak esku-hartze eremuaren ingurumen mehatxu nagusien eta larrialdi egoerekin eta horrelakorik egonez gero, laguntza humanitarioarekin duen loturaren analisirik egiten duen. **2 puntu.**



Ea proiektuan proposatzen den ingurumen mehatxuen ondorioak arintzea eta hori proiektuan aurreikusitako emaitzaren batean, jardueraren batean edo adierazleren batean islatzen den. **4 puntu.**

Ea ingurumen jasangarritasunaren sustapena proiektuan aurreikusitako emaitzaren batean, jardueraren batean edo adierazleren batean islatzen den. **2 puntu.**

3. TALDEA. ERAGILE PARTE-HARTZAILEAK. GEHIENEZ 12 PUNTU.

3.1. azpitaldea. Eragile eskatzailea. Gehienez 7 puntu.

3.1. Oinarri soziala. 2 puntu.

Erakunde eskatzaileak kidetutako 50 pertsona baldin baditu, gutxienez, Bizkaian. **2 puntu.**

3.2. Gaitasuna eta kaudimena. Puntu 1.

Erakundeak diru-laguntzaren xede den proiektuaren aurrekontuaren kopuru bera edo handiagoa duen ekintza humanitarioko proiektu bat gauzatu baldin badu, gutxienez. **Puntu 1.**

3.3. Eragile eskatzailearen eta tokiko eragilearen arteko harremana. Puntu 1.

Erakundeak adierazten baldin badu tokiko erakundearekin gutxienez 3 proiektu edo ekintza batera egin dituela. **Puntu 1.**

3.4. Sareetan parte hartzea. Puntu 1.

Erakundeak adierazten badu sare batean parte hartzen duela. Sarea da erakunde ezberdinek modu egonkorrean helburu komun bat lortzeko eratzen duten akordioa. **Puntu 1.**

Sare batean parte hartzen delako informazioa balidatzeko, parte-hartze aktiboari buruzko abal bat erantsi behar da, sarea ordezkatzeko duen agintariren bat emana (ez GGKE eskatzaileak). Sarea ordezkatzeko duen agintaririk ez badago, sarean diharduten beste hiru erakunderen (GGKE eskatzailea kontuan hartu gabe) abalak erantsi behar dira.

3.5. Komunikazioa. 2 puntu.

Ea proiektuan gizarteratze kritikoko ekintzarik proposatzen den komunikabideren, gizarte erakunderen edo erakunde publikoren batekin aliantzan. Gizarteratze kritikotzat jotzen dira egungo eredu nagusiari buruzko hausnarketa kritikoak sortzen dituztenak. Egungo ereduaren oinarria munduko gizarte, ekonomia eta lurralde desberdintasunek osatzen dute eta proiektuan jorratzen den krisi humanitarioarekin edo larrialdi egoerarekin lotuta dago. **2 puntu.**

3.2. azpitaldea. Tokiko entitatea. Gehienez 5 puntu.

3.6 Lurraldean finkatuta egotea. 2 puntu.

Erakundeak adierazten badu esperientzia duela diru-laguntza eskatzeko proiektuari lotuta dagoen biztanleria subjektuarekin edo edo egin nahi den udalerrian gutxienez 3 proiektutan lan egin duelako. **2 puntu.**



3.7. Esperientzia. 2 puntu.

Erakundeak adierazten badu lan-esperientzia duela ekintza humanitarioen alorrean. **2 puntu.**

3.8 Sareak eta aliantzak. Puntu 1.

Tokiko erakundeak, gutxienez, proiektua garatuko den lurraldeko gizarte erakundeen lantalde edo sare batean parte hartzen badu. **Puntu 1.**

Sare batean parte hartzen delako informazioa balidatzeko, parte-hartze aktiboari buruzko abal bat erantsi behar da, sarea ordezkatzeko duen agintariren bat emana (ez GGKE eskatzaileak). Sarea ordezkatzeko duen agintaririk ez badago, sarean diharduten beste hiru erakunderen (GGKE eskatzailea kontuan hartu gabe) abalak erantsi behar dira.



VII. KAPITULUA URTE ANITZEKO PROIEKTUAK

1. TALDEA. PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKOA. GEHIENEZ 22 PUNTU.

1.1. azpitaldea. Diagnostikoa. GEHIENEZ 8 PUNTU.

1.1. Aurrekariak. Gehienez 3 puntu.

3 puntuak jasotzeko lau baldintza bete behar dira, hauei dagozkienak: a) identifikazioa eta planifikazioa; b) formulazioa, c) gauzatzea; eta d) ebaluazioa edo sistematizazioa.

a) Identifikazioari eta planifikazioari dagokionez.

Kasu honetan, aldi berean, baldintza bi bete behar dira, metodologiari eta aniztasunari dagozkienak.

- Proiektua identifikatzeko eta planifikatzeko erabilitako **metodologia** parte-hartzailea izatea.

- Kontuan hartuko da **biztanleria subjektuaren aniztasuna**. **Biztanleria subjektua** da zuzenean proiektuan parte hartuko duten pertsonen osatutako taldea. Biztanleria horren **aniztasuna** da biztanleria subjektua azpitaldeetan banatzea ahalbidetzen duen ezaugarri-multzoa. Ezaugarri agerikoena da sexu-banaketa, baina, horrez gain, badaude aztertze beste zenbait kategoria posible, hala nola sexu-aniztasuna, erlijioa, pertsona lekualdatuek bertakoekin alderatuta duten egoera, adina, etnia, familiako errenta eta abar. Ez dago txantiloirik aniztasuna aztertze gidoi komun gisa erabiltzeko, GGKEak testuinguruaren arabera emango du aniztasunari lotutako alderdi garrantzitsuenen inguruko informazioa. Kontuan hartuta irizpide hau proiektuaren aurrekarietarako dagokiela, puntuak lortzeko, plangintza-, prestatze- eta betearazte-/ebaluzio-prozesuan aniztasun sozialaren ordezkari gokia egoteko aurreikusitako neurrien berri eman beharko da.

b) Formulazioari dagokionez.

Gainera, proiektua modu parte-hartzailean **formulatu** beharko da. Hori horrela izateko, proiektua behin betiko idatzi aurretik gauzatuko den prozesu bat aurreikusi beharko da. Hala, prozesu horretan, proiektuaren inprimakiaren zirriborroa edo zirriborroak biztanleria subjektuari edo hura ordezkatzeko duenari aurkeztu beharko zaizkio, eta haiek horren inguruan eztabaidatu beharko dute.

c) Gauzatzeari buruz.

Gainera, proiektua modu parte-hartzailean **gauzatu** beharko da. Hori bete dela ulertuko da biztanleria subjektuaren jarrera ez denean pasiboa planifikatutako jardueretan. Horrenbestez, biztanleria subjektuak parte hartuko du proiektuaren nondik norakoen inguruan erabakiak hartuko diren aurreikusitako espazioetan.

d) Ebaluazioari edo sistematizazioari buruz.

Halaber, proiektua **ebalatu edo sistematizatu** beharko da, eta modu parte-hartzailean egin beharko da.



Adierazitako lau etapen artetik biztanleria subjektuak hirutan, bitan edo behin parte hartzea bakarrik aurreikusten baldin bada, **3 puntu** esleituko dira.

Gainerako kasuetan 0 puntu emango dira.

1.2. Testuingurua. 3 puntu.

Testuinguruari buruzko atalean inprimakia barematzeko, kontuan hartuko da biztanleria subjektuaren hurbileneko ingurunean dauden ezaugarri politiko, ekonomiko eta sozialei buruz aurkeztutako informazioa, bai eta barruko aniztasunaren ondoriozko komunitatearen barruko harremanei buruzkoa ere. **3 puntu.**

1.3. Justifikazioa. 2 puntu.

Jorratu nahi den arazoa edo arazoak modu argi eta zehatzean azaltzen baldin badira eta biztanleriaren beharrian eta interesetan oinarritutako harreman sendoa eratzen baldin bada. **2 puntu.**

1.2. azpitaldea. Koherentzia. Gehienez 3 puntu.

1.4. Helburuaren eta justifikazioaren arteko harremana. Puntu 1.

Proiektuaren helburuak eta justifikazioaren atalean deskribatutakoak lotura argia badute. **Puntu 1.**

1.5. Ekintzen azalpena. Gehienez 2 puntu.

Jarduerak nahikoa azalduta egon beharko dira. Jarduerak askotarikoak izan daitezkeenez, dokumentu honetan aurretik ematen ditugun azalpenetan ezinezkoa da horien azalpen-maila baloratzeko erabiliko diren aldagaiak zerrendatzea. Hala ere, adibide gisa aipatu daitezke prestakuntzaren inguruko jarduerak; horietan edukien azalpena baloratuko da. Beste adibide bat da eraikuntzari buruzko jarduerena, non titulartasunari, obra-memoriari eta planoei buruzko agiriak baloratuko diren. **2 puntu.**

Jardueraren bat nahikoa azalduta ez badago **puntu 1** esleituko da.

1.3. azpitaldea. Baliabideak. Gehienez 3 puntu.

1.6. Partidak banakatzea. Gehienez 2 puntu.

Aurrekontuko partida eta ekimen guztiak **banakatuta** badaude. Partidak banakatzea da lortu nahi den ondasun edo zerbitzu bakoitzaren unitate-kostua azaltzea. **2 puntu.**

Partidaren bat banakatuta ez baldin badago: **Puntu 1.**

1.7. Proformako fakturak. Puntu 1.

Honako hauek azaltzen dituzten fakturak eransten dira:

- Tokiko langileen eta/edo erbesteratutako langileen gastuetarako eskatutakoaren % 100.
- 2.500 euroko kostu unitariko ondasunen eta zerbitzuen % 100 (ekipamenduak, ibilgetua, kontratazioak ...).



Faktura horiek partidak jasotzen dituen taularekin behar bezala zenbakituta egon behar dira. **Puntu 1.**

1.4. azpitaldea. Jarraipena. Gehienez 4 puntu.

1.8. Adierazleak. Gehienez 4 puntu.

Helburuaren eta emaitzen lorpen-maila neurtzeko eta egiaztatzeko adierazleak jaso badira. **4 puntu.**

Emaitzaren batentzat edo zenbait emaitzentzat adierazleak jaso badira **2 puntu** esleituko dira.

1.5. azpitaldea. Jasangarritasuna. Gehienez 4 puntu.

1.9. Jasangarritasunerako bitartekoak. Puntu 1.

Proiektuaren ondorioz sortuko diren irabaziak, hala sozialak nola finantzarioak, mantentzeko beharrezko bitartekoei buruzko kalkulurik badago. **Puntu 1.**

Oro har, proiektuak hiru motatan bana ditzakegu, jasangarritasunari dagokionez:

- Garapen ekonomikoko proiektuak. Horietan beharrezkoa izango da abiarazi nahi den ekimenaren bideragarritasun finantzarioaren inguruko ikerketa oso bat aurkeztea.
- Garapen ekonomikoko proiektuak izan ez arren horiek mantentzeko sarreraren bat eskatzen dutenak. Adibidez, urez hornitzeko sistemak eraikitzea, eskola bat edo komunitate-zentro bat eraikitzea eta abar. Kasu horietan nahikoa izango da mantenu-kostuen eta horiei aurre egiteko sarreraren jatorriaren inguruko estimazio soil bat aurkeztea.
- Otros proyectos, como por ejemplo relativos al fortalecimiento organizativo, o a la prevención de la violencia contra las mujeres, quedan eximidos de su aplicación.
- Beste proiektu batzuk, adibidez, antolakuntza indartzeari buruzkoak edo emakumeen kontrako indarkeria ekiditekoak. Kasu horietan berariaz aipatu beharko da zein neurri aurreikusi den biztanleria subjektuan edo horien erakunde ordezkarietan lortutako aurrerapenak etorkizunean mantentzeko.

1.10. Abala. Puntu 1.

Tokiko erakunde publiko baten konpromisoa badago, emaitzak mantentzeko behar diren baliabideak emateko. Puntuatzeko, abala erantsi behar da. **Puntu 1.**

Salbuespenezko kasu batzuetan ezinezkoa izan daiteke abal hori lortzea, testuinguru instituzional zail baten aurrean gaudelako. Gatazka armatuetan jatorria izan dezaketen egoerak, hainbat instantzia inplikatzeko legez kanpoko negozioetan, agintari publikoen eta gizarte zibileko erakundeen arteko konfrontazio argi eta garbi batean... Kasu horietan, GKEak irizpide hori aurkeztutako proiektuaren baremazioan baztertzea egokia dela argudiatu ahal izango du. Bere argudioak aurkezteko gune egokia autobaremazio eranskina da.



1.11. Estrategia. 2 puntu.

Proiektua tokiko erakunde publiko baten edo bokazio publikoa duen erakunde baten garapena edo eraldaketa soziala lortzeko plan edo estrategia batekin lotuta badago. Dirulaguntzaren xede den proiektua estrategiarekin lotzen den puntuari erreferentzia berariaz egin beharko zaio, eta estrategia horren dokumentua erantsi beharko da. **2 puntu.**

2. TALDEA. 2022-2030EKO IV. PLAN ZUZENTZAILEKO LEHENTASUNEN ARABERAKO EDUKIA. GEHIENEZ 17 PUNTU.

2.1 Azpitaldea. Lehentasun geografikoa. Gehienez 7 puntu.

2.1 Afrikako kontinentea. 7 puntu.

Proiektua Afrikako herrialderen batean egiten bada. **7 puntu.**

2.2 Azpitaldea. Proiektuaren eredia. Gehienez 10 puntu.

2.2 Eragile ez-tradizionalen parte-hartzea. 7 puntu.

Ea proiektua garatzeko beharrezkoa den Bizkaiko eragile ez-tradizional batek parte-hartze aktiboa izatea. Parte-hartze hori jardueren esparruan nabarmendu behar da eta eragile ez-tradizional espezializatuaren esperientzian edo ezagutzan oinarritu behar da. **7 puntu.**

2.3 Bizkaiko lankidetzak jarraitzea. 3 puntu.

Proiektua biztanleria subjektu berak edo inguru hurbileneko biztanleriak parte hartu zuen beste proiektu baten segidakoa baldin bada, eta Bizkaiko Foru Aldundiak aurreko 3 urteetako deialdietan finantzatu baldin bazuen. **3 puntu.**

3. TALDEA. 2022-2030 IV. GIDA PLANEAN JASOTAKO ZEHARKAKOAK. GEHIENEZ 29 PUNTU.

3.1. azpitaldea. Eskubideen ikuspegia. Gehienez 8 puntu.

3.1 Eskubideetan oinarritutako ikuspegia. 8 puntu.

- a) Proiektuaren testuinguruan urratzen diren eskubideei, eskubide horien titularrei, betebeharren titularrei eta giza eskubideen defentsarako tokiko erakundeei buruzko azterketa baldin badago. **2 puntu.**
- b) Ea proiektuak betebeharren eta eskubideen titularrak identifikatzen dituen eta betebeharren eta eskubideen titularrekin jarduerak planifikatzen dituen biztanleria subjektua babesten duten eskubideak betetzeko. Betebeharren titularren jardueretako parte-hartzea aktiboa izan behar da, ez pasiboa, eta proposamen orokorrean leku garrantzitsua izan behar du, hau da, ez da hutsala izan behar. **6 puntu.**

Salbuespenezko kasu batzuetan, betebeharren titularrekin lan egitea materialki ezinezkoa izan daiteke, testuinguru instituzional zail baten aurrean gaudelako. Gatazka armatuetan



jatorria izan dezaketen egoerak, hainbat instantzia inplikatzeko legez kanpoko negozioetan, agintari publikoen eta gizarte zibileko erakundeen arteko konfrontazio argi eta garbi batean... Kasu horietan, GKEak irizpide hori aurkeztutako proiektuaren baremazioan baztertua egokia dela argudiatu ahal izango du. Bere argudioak aurkezteko gune egokia autobaremazio eranskina da.

3.2. azpitaldea. Genero-berdintasuna eta aniztasun sexuala. Gehienez 13 puntu.

3.2. Harreman bidezkoen sustapena. Gehienez 8 puntu.

Ea emakumeen eta gizonen arteko botere harremanen analisirik egiten den eta ikuspegi interseksionala sartzen den, ikusirik bestelako inguruabarrak daudela, hala-nola etnia, sexu orientazioa, gizarte klaseak, adina, desgaitasuna, eta abar. Eta analisi honekiko modu koherentean, harreman ekitatiboaren sustapen hori proiektuan aurreikusitako emaitzaren, jardueraren edo adierazleren batean islatzen baldin bada. **8 puntu**

Analisiak aipatutakoari erantzuten ez badio ero irizpidea bakarrik emaitza, jarduera edo adierazleren batean islatzen bada, **2 puntu** esleituko dira.

3.3 Erakunde feministak. Puntu 2.

Emakumeen eskubideen alde borrokatzen duten tokiko erakundeekin lankidetzan aritzea jasota baldin badago. **Puntu 2.**

3.4 Aniztasun sexuala. 3 puntu.

Ea proiektuak emaitzaren, jardueraren eta adierazleren batean islatzen duen sexu identitateen/orientazioen eta genero ez normatiboaren balorazio positiboa sustatzea. **3 puntu.**

Sexu identitateen eta genero ez normatiboaren balorazio positiboa emaitzaren, jardueraren edo adierazleren batean islatzen baldin bada **1 puntu** esleituko da.

3.3. azpitaldea. Ingurumen-jasangarritasuna. Gehienez 8 puntu.

3.5 Ikuspegi ekologikoa. 8 puntu.

- a) Proiektua gauzatuko den testuinguruaren ingurumen egoerari buruzko azterketa jasotzen bada, egungo ekoizpen eta kontsumo ereduak herrialde txiroetan sortzen dituzten inpaktuen analisisa eta ingurumen iraunkortasunari eragiten dioten mehatxu nagusiak, eta klima-aldaketak lurraldeari nola eragiten dion barne. **2 puntu.**
- b) Ea ekintzaren batik dagoen ingurumen jasangarritasuneko mehatxuei aurre egiteko, klima aldaketa neurtzeko edo horri aurre egiteko neurririk dagoen eta/edo bizitzaren jasangarritasuna ezartzen duen neurririk, hau da, naturaren, etxeko espazioaren eta merkatuaren arteko harreman orekatuagoak sustatzen dituztenak. Hori guztia proiektuan aurreikusitako emaitzaren, jardueraren edo adierazleren batean islatu behar da. **6 puntu.**

Baldintza hori bakarrik emaitzaren batean, jardueraren batean edo adierazleren batean islatzen baldin bada **2 puntu** esleituko dira.



4. TALDEA. ERAGILE PARTE-HARTZAILEAK. GEHIENEZ 20 PUNTU.

4.1. azpitaldea. Eragile eskatzailea. Gehienez 9 puntu.

4.1. Oinarri soziala. Puntu 1.

Erakunde eskatzaileak gutxienez kidetutako 50 pertsona baldin baditu, Bizkaian. **Puntu 1.**

4.2. Boluntarioak. 2 puntu.

Erakunde eskatzaileak gutxienez 10 boluntario baditu harekin lanean Bizkaian. Puntuak lortzeko, gutxienez 10 pertsonak GGKEari atxikitako boluntario gisa nahitaezko aseguru dutela ziurtatzen duen agiria erantsi behar da. Agiri horrekin batera, aseguruan pertsonaren izan-abizenak eta helbidea agertzen ez badira (kasu horretan, baino ez), GGKE eskatzaileak emandako beste bat erantsi behar da, non zehaztuko den aseguraturako zein pertsonak duten egoitza iraunkorra Bizkaian eta jasoko diren pertsona horien sinadurak. **2 puntu.**

4.3. Gaitasuna eta kaudimena. Puntu 1 gehienez.

Erakunde eskatzaileak diru-laguntzaren xede den proiektuaren proiektuaren guztizko aurrekontuaren kopuru bera edo handiagoa duen proiekturen bat gauzatu baldin badu. **Puntu 1.**

4.4. Eragile eskatzailearen eta tokiko erakundearen arteko harremana. Gehienez 3 puntu.

Eragile adierazten baldin badu tokiko erakundearekin batera gutxienez 3 proiektu edo ekintza gauzatu dituela. **3 puntu.**

Adierazten baldin bada aurretik gutxienez 2 proiektu elkarrekin gauzatu dituztela. **Puntu 1.**

4.5. Sareetan parte hartzea. Gehienez 2 puntu.

Erakundeak bi saretan parte hartzen duela jakinarazten badu. Sareztat jotzen dugu erakunde batzuen arteko akordio bat, zeinaren bidez lan-espazio egonkor bat ezartzen den helburu komuna lortzeko aurrerapausoak emateko. **2 puntu.**

Sare batean parte hartzen duela jakinarazten badu. **Puntu 1.**

Sare batean edo bitan parte hartzen delako informazioa balidatzeko, parte-hartze aktiboari buruzko abal bat erantsi behar da, sarea ordezkatzeko duen agintariren bat emana (ez GGKE eskatzaileak). Sarea ordezkatzeko duen agintaririk ez badago, sarean diharduten beste hiru erakunderen (GGKE eskatzailea kontuan hartu gabe) abalak erantsi behar dira.

4.2. azpitaldea. Tokiko eragilea. Gehienez 11 puntu.

4.6 Lurraldean finkatuta egotea. 5 puntu gehienez.

Erakundeak proiektua (zeinetarako diru-laguntza eskatzen den) egin nahi den udalerrian gutxienez 3 proiektuko esperientzia badu edo biztanleria berarekin lan egin badu gutxienez hiru proiektutan, eta horri buruzko informazioa ematen badu. **5 puntu.**



Erakundeak adierazten badu esperientzia duela, biztanleria subjektu berarekin bi proiektutan lan egin duelako. **2 puntu.**

4.7. Esperientzia. Gehienez 4 puntu.

Erakundeak adierazten badu esperientzia duela, diru-laguntza eskatzea eragin duen proiektuaren barruan dagoen sektore berean gutxienez 3 proiektu egin dituelako. **4 puntu.**

Erakundeak adierazten badu esperientzia duela, sektore bereko bi proiektutan lan egin duelako: **2 puntu.**

4.8 Sareak eta aliantzak. Gehienez 2 puntu.

Erakundeak, gutxienez, gizarte-erakundeen bi saretan parte hartzen badu. **2 puntu.**

Erakundeak, gutxienez, sare batean parte hartzen badu **puntu 1** esleituko zaio.

Sare batean edo bitan parte hartzen delako informazioa balidatzeko, parte-hartze aktiboari buruzko abal bat erantsi behar da, sarea ordezkatzeko duen agintariren bat emana (ez GGKE eskatzaileak). Sarea ordezkatzeko duen agintaririk ez badago, sarean diharduten beste hiru erakunderen (GGKE eskatzailea kontuan hartu gabe) abalak erantsi behar dira.

5. TALDEA. ESKU-HARTZEAREN BALIO ERANTSIA. GEHIENEZ 12 PUNTU.

5.1 azpitaldea. Urte anitzeko izaera kontuan hartzen duen balio erantsia. Gehienez 6 puntu.

5.1 azpitaldea. Urte anitzeko izaera kontuan hartzen duen balio erantsia. 6 puntu, gehienez.

Gure ustez, 36 hilabeteko aldiko esku-hartze iraunkor batetik espero daitekeen balio erantsia garapen prozesuak (garapena, hitzaren zentzurik zabalenean ulertuta) egonaldien segida gisa ulertzean datza. Egonaldi horiek kualitatiboki bata bestearen desberdinak dira eta guztiek batera azken helburua erdiesten laguntzen dute. Hortaz, urte anitzeko proiektu bat ez da hainbat proiekturen arteko batura; hobe esanda, konplexutasun handiagoko proiektuak gauzatuz eta esku-hartzen duen errealitateen egitura-forma eraldatzeko gaitasun handiagoarekin, epe ertaineko finantzazio egonkor batek eskaintzen dituen abantailak baliatzen dituen prozesu bat da.

Balorazio-irizpide hori gorago adierazitakoaren betetze-maila kontuan hartuz aplikatuko da; urte anitzeko proiektua osatzen duten urte bakoitzerako ezarri diren helburuen arteko kontrastetik edo proiektuan aurreikusten den azken eszenatokira gidatu duten helburu desberdinak erdiesteko une berean martxan jarri diren ekintzen multzotik abiatuta. Ea proiektuak aipatutako prozesuaren profila betetzen duen, hau da, ea hurrenez hurreneko etapak betetzean helburu bat lortzen den. Horrela bada, **6 puntu** esleituko dira.

5.2 azpitaldea. Garapenerako lankidetzaren eta gizarte aldaketarako hezkuntzaren (aurrerantzean EpTS, gaztelaniazko siglekin) esku-hartzearen arteko lotura kontuan hartzen duen balio erantsia. Gehienez 6 puntu.

5.2 Garapenerako lankidetzaren eta EpTSren arteko lotura kontuan hartzen duen balio erantsia. 6 puntu, gehienez.



Garapen prozesuetan tokiko ikuspegi globala ezartzen denean atzean uzten dira iparraldea-hegoaldea ikuspegi tradizionala eta lankidetzaren-EpTS dikotomia, izan ere, adostasuna dago garapen erronken izaera orokorrari eta tokiko arazoei guri eragiten diguten dinamika globalen ikuspegi zabal eta kritikoa batetik aurrera egiteko beharri buruz. Azken horri lotuta, urte anitzeko proiektuek Bizkaiko eraldaketa prozesuen eta hegoalde globalean kokatuta daudenen arteko egituratze handiagoa sortzeko aurrera egiteko beharri erantzuten diote.

Ondorioz, baloratu egingo da EpTS ekintzak martxan jartzea, baldin eta horiek gizarteratze kritikoko prozesu zabal baten parte badira eta horiei esker bizkaitarrek ikuspegi kritikoa garatzen badute mundua interpretatzeko eta aldaketarako irtenbideak sortzen badituzte. Horretarako, garapenerako lankidetzan lan egin duten proposamenekin, edukiekin eta eragileekin hitz egingo da. EpTS ekintza horien gastuak, guztira emandako dirulaguntzaren aldean, % 10 eta % 30 izan behar du, eta jardueren arabera aurrekontuan islatu behar da. Aurreko guztia betez gero, **6 puntu** esleituko dira. Beste edozein kasutan, **0 puntu** emango zaizkio.